

PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

V.J. s.a. enpresak emakumeen osasuna hobetu nahi du. Gaur egungo gizartean hilekoari aurre egiteko baliabideek planetan kalte handia egiteaz gain, produktu hauek erabiltzen dituztenek ere kalteak jasaten dituzte osasunean. Horretarako, tanpoi berritzaile batzuk sortu ditugu erabiltzailearen osasuna kaltetzen ez dutenak. Gure taldea, pertsona oso ekintzaileez eta saltzaile ezinhobeez osatzen den horretan, gure produktuaren erabileak lagundu nahi izan ditugu. Guk nahi duguna da, hain zuzen ere, bezeroa modu libre, eroso eta osasuntsu batean bere hilerokoa bizi ahal izatea, muga eta harresirik gabe.



Horretaz gain, gure planetan gertatzen ari diren aldaketetaz jabetzen garenez, aplikadore biodegradableak sortu ditugu, hauek zabor bilakatu ez daitezten. Gainera, esponja gorputzetik ateratzeko erabiltzen diren hariak ekologikoak dira, beraz, ez da plastikorik erabiltzen gure produktua sortzeko. Hala, gure ideia berritzaile guztiak bilduz, proiektu hau sortu dugu berotegi efektuaren kontra eta emakumeen sexu-organoak dituzten pertsona ororen alde egiteko.